


IKASLE ETA FAMILIENTZAKO GIDA

2020-21 COVID EGOKITZAPENA



JESÚS GURIDI MUSIKA
KONTSERBATORIOA
CONSERVATORIO
DE MÚSICA

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	4
OSASUN-HIGIENE ARAUDIA	5
Gaixotasun kasuan	5
COVID POSITIBOAREN KASUAN	6
2. BARNE ARAUDI ETA INSTALAZIOEN ERABILERA	6
2.1. ZENTROKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOAK	6
2.2. ZENTRORA SARTZEKO ARAUDIA	7
2.3. BERTARATZE FALTAK	7
2020-21 Kurtsoa	8
Orientazioa ebaluaketa jarraia galtzekotan.....	8
2.4. KONSERBATORIOKO KARNETA	8
2.5. ARMAIRUEN ERABILERA	9
1. Armairuen erabilera puntuala	9
2. Kurtsoko osorako armairuen erabilera.....	9
2.6. IKASGELA ETA KABINEN ERABILERA	10
Ikasteko kabina baten eskaera	10
Ikasgela baten eskaera	10
Erabilera araudia	10
2.7. INSTRUMENTUEN LAGAPENA	11
2.8. BIBLIOTECA JESÚS GURIDI LIBURUTEGIA	11

2.9. TELEFONO MUGIKORREN ARAUDIA 13

3. ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES VICENTE GOIKOETXEA GURASO ELKARTEA..... 13

AURKEZPENA

Zorionak! Ongietorria ematen dizugu Vitoria-Gasteizeko “Jesús Guridi” kontserbatoriora.

Kontserbatorioan musikaren oinarri teoriko eta praktikoak ikasi ahalko dituzu, baita instrumentu bat jotzen, dibertitzen, musika taldean interpretatzen... Asko gozatuko duzu bizipen paregabeekin... Baina honetarako, esfortzua beharko duzu, disziplinaz eta ikasiz. Hona hemen hasteko aholku batzuk:

- Asteroko ikasketa orduak antolatu.
- Agenda erabili eta eginbeharrak eguneratuta eraman.
- Musika jo/praktikatu/ikasi egunero
- Musika entzun. Zure instrumentuaren errepertorioa ezagutu. Kontzertuetara joan, ez galdu Kontserbatorioak eskaintzen dituen aukerak.

Gauza berri asko direla dakigunez, gida honetan, gure kontserbatorioari buruzko informazio praktikoa eskaintzen dizugu. Informazio gehiago nahi izatekotan gure web orria kontsulta dezakezue www.conservatoriovitoria.com, posta elektronikora idatzi info@conservatoriovitoria.com, edo 945 28 24 00ra deitu.



Izena eman beharko duzue (adin nagusikoe) hurrengo plataforman eta kontaktu datuak eguneratu. Hezkuntza Saileko Familientzako arreta ataria da, **IKASGUNE**. Hor jasoko dituzue zentroko jakinarazpenak, zuen ordutegia kontsultatu eta kalifikazioak ikusi datozen ebaluaketetan, bertaratze faltan abisuak jaso eta justifikatu, irakasleriaren helbide elektronikoak kontsultatu, etab.

COVIDaren aurreko PREBENTZIO neurriak:

OSASUN-HIGIENE ARAUDIA

Oraingo testuinguru pandemikoan, hezkuntza komunitate guztiarentzako derrigorrezkoak diren hurrengo osasun-higiene neurriak hartzen dira.

- Maskararen derrigorrezko erabilera zentroan.
- Segurtasun distantzia mantentzea (1,5 m).
- Eskuak sarritan garbitu. Derrigorrezkoa zentrora sartzean (sarrerako hidrogela) eta derrigorrezkoa klaseen artean..

Hezkuntza komunitate guztiak ikasleria kontzientziatu beharra du araudiaren garrantziaz: Seinaleak, segurtasun distantziak, ukondo edo musuzapien erabilera doministiku egitean, etab.

AISLAMENDU KASUAN

COVID positiboa duen norbaitekin kontaktu zuzena izateagatik aislamenduan egonez gero, EZ da zentrora etorri behar. Ez da zentrora berarekin bizi den inor etorri beharko (anai-arreba).

Falta eta honen iraupena tutoreari (instrumentu irakaslea) komunikatu behar zaio ahalik eta lasterren. Egoeraren arabera, ikasgai desberdinetan arreta telematikoa burutzeko gaitasun edo beharra baloratuko da.

GAIXOTASUN KASUAN

- Sintomatologia orokorraren kasuan EZ da zentrora etorri behar.
- Zentroan dagoen bitartean, ikaslean sintomatologia orokorra somatzen bada, guardian dagoen irakasleak aislamendu gela batera eramango du ikaslea eta momentuan bertan familiarekin kontaktuan ipiniko da jasotzera etor daitezten.

COVID POSITIBOAREN KASUAN

Ikaslea PCRaren bidez positibo diagnostikatzen bada, familiak berehala abisatu beharko du zentroko zuzendaria posta elektronikoz, izen eta abizenak zehaztuz, baita espezialitatea eta kurtsoa ere: 010131aa@hezkuntza.net.

Zentroak kontaktu zuzena izan duten ikasleen familiak abisatuko ditu, aislatu eta Kontserbatorioaren erreferentziarako OSI (Organización Sanitaria Integrada) argibideak errazteko asmoz.

Zentroaren borondatea da ikasleari arreta telematikoa ematea aislamenduan. Aurretik ordutegiak flexibilitatez berrantolatuz. Hala era, egoera bakoitzaren berezitasuna ikusi eta errefortzuak planteatu daitezke berriz presentzialki itzultzean.

1. EGUTEGIAK

Kontserbatorioko web-orrian bi egutegi erabilgarri kontsulta daitezke: eskola-egunen egutegia eta zentroaren irekiera egutegia.

2. BARNE ARAUDI ETA INSTALAZIOEN ERABILERA

2.1. ZENTROKO DOKUMENTU ESTRATEGIKOAK

Kontserbatorioko web-orrian dokumentu estrategikoak kontsulta daitezke: Zentroaren Hezkuntza Proiektua(PEC), Funtzionamendu eta Antolamendu Araudia(ROF) eta Akzio Tutorial Plana (PAT).

COVID: Kontserbatorioko web-orrian eskuragarri egongo dira Kontingentzia Plana eta Jokabide Estrategiak 2020-21 kurtsorako. Behin Hezkuntza Inspezio eta zentroko Ordezkarri Gorenak onartuta.

2.2. ZENTRORA SARTZEKO ARAUDIA

Zentrora sar ohi daiteke ikasleak, irakasleak eta kontserbatorioko langileak; Sarrera publikoa onartuko da audizio, kontzertu eta emanaldietan (osasun egoeraren eboluzioaren arabera).

- Aurretik instrumentu irakasleak baimendutako guraso edo tutoreak: identifikazio txartela tutoreak emango dio klasean. Lehenengo egunetan atezaintzan tutorearen izena emanda nahikoa izango da.
- Liburutegiko Erabiltzaileak: liburutegian erregistratu beharko dira.

2.3. BERTARATZE FALTAK

R.O.F.ean jasotako araudiak 56. Artikuluan hurrengoa adierazten du:

“El alumnado debe asistir a todas las clases, con puntualidad y sin ausencias injustificadas, respetando los horarios de entrada y de salida, con las excepciones derivadas de procesos de convalidación y de los casos de materias ya cursadas previamente en otra especialidad. Se considerarán injustificadas aquellas ausencias o impuntualidades que no sean excusadas por el alumnado o, en caso de menores de edad, por sus padres, madres o representantes legales, aportando justificación admisible.

Se entiende por justificación admisible cualquier notificación de enfermedad, consulta médica, trámite legal o educativo, situación familiar grave o asistencia a actividades de su centro de enseñanza o de trabajo. La justificación se realiza a través del portal de Ikasgunea a la mayor brevedad posible. No podrán ser justificadas al término de la evaluación.

El justificante, en papel según el modelo disponible en Centrosnet, se entregará al docente de la materia afectada en la primera clase en la que se reincorpore el alumnado a esa materia y, en las ausencias prolongadas, a la mayor brevedad posible sin esperar a la normalización de la situación.

Cuando se acumulen ocho faltas de asistencia en asignaturas con una sesión semanal o dieciséis en asignaturas de dos sesiones semanales se perderá el derecho a la evaluación continua (véase siguiente epígrafe). Si esto sucede en la mitad o más de las asignaturas que constituyen su curso causará baja en el centro con pérdida del puesto escolar.

El alumnado con ausencias prolongadas por enfermedad, accidente u otros, justificadas fehacientemente mediante documento médico, u otros documentos oficiales acreditativos, no perderá la oficialidad y podrá volver a matricularse en el siguiente curso académico sin necesidad de hacer

prueba de acceso, si así lo decide el equipo directivo del centro, asesorado por el equipo docente. Esta decisión constará en el expediente del alumno o alumna.”

2020-21 Kurtsoa

Justifikazioa Ikasgunea atariaren bitartez egin ahalko da eta aurreikusitako ez-etortzeak edo luzarokoetarako irakaslearekin harremanetan jarri ahalko da @irakasle.eus helbidearen bidez (ikasgunean eskuragarri).

COVID: Osasun larrialdi egoera honen ondoriozko bertaratze faltak ez dira kontuan hartuko ebaluaketa jarraiari dagokionez.

Orientazioa ebaluaketa jarraia galtzekotan

Klasera luzaroan edo askotan ez etortzeak ikas-prozesuaren jarraipena apurtzen du eta ebaluaketa jarraia burutzeko segimendua ezinezkoa egiten du. Arrazoi honengatik, amaierako ebaluaketa departamentu didaktikoak ezarritako probaren bidez ordezkatu da.

Egoera hau aurreikusten bada, irakasleekin kontaktua mantentzea gomendatzen da. Aldi berean irakasleak, amaierako frogaren ezaugarri, data, baldintzak etab. informazio erraztu ahalko du. Ebaluaketa jarraiaren galera hau ikasgaien erdian baino gehiago ematen denentzat, aurretik eskolako postua mantentzeko araudia bete dadin, zentroko zuzendaritzara instantzia bat bidaltzea gomendatzen da.

2.4. KONSERBATORIOKO KARNETA

Kontserbatorioko karneta, zentrorantz zatozenean zurekin eraman beharreko identifikazio txartela da. Txartel hau, gure zentroan hasten zaren kurtso hasieran dohainik emango zaizu (galeraren ondorioz kopia bat eskatzeak 5€ko kostua izango du). Karnet honek, hainbat kontzertu eta jarduera kulturaletan deskontuak lortzen lagunduko dizu. Gainera, derrigorrezkoa da armairuak eta ikasteko gelak eskatu eta fotokopiak egiteko.

Fotokopiagailuaren erabilera: karneta fotokopiagailurako 20 kredituko saldoarekin dator. Hurrengo kargetarako ez da beharrezkoa txarteleko kredituak agortzea, honetarako, karneta

eta dirua fotokopiagailuaren ondoan dagoen postontzian sartuko dira. Dena, hor dauden gutunazaletako batean. Hurrengo egunean, txartela kargaturik hartuko da atezaintzan.

COVID: Fotokopiagailuaren zerbitzua bertan behera dago kontrakoa erabaki arte.

2.5. ARMAIRUEN ERABILERA

Zentroko ikasleek armairuak dituzte eskuragarri, beraien instrumentu eta material didaktikoa gordetzeko. Armairu hauen erabilera puntuala edo kurtso osorakoa izan daiteke.

1. Armairuen erabilera puntuala

1.1. Atezaintzan giltza eskatuko da ikasle txartela aurkeztuz eta egun berean itxiera ordua baino lehen itzuliko da, armairua itxita eta hutsa utziz. Atezaintzak erregistro eguneratua mantenduko du eta hor, ikaslearen izena eta armairuaren zenbakia agertuko dira.

1.2. Giltza ez itzultzeak edo armairuen erabilera desagokiak, hauek erabiltzeko eskubidearen galera ekarri dezake. Egoeraren arabera epe desberdinetan zehar.

1.3. Giltza galtzen bada 30€ ordaindu beharko dira armairuaren sarraila aldatu ahal izateko.

COVID: 2020-21 kurtzorako armairuen erabilera puntuala bertan behera geratzen da.

2. Kurtsoko osorako armairuen erabilera.

2.1. Zentroko zuzendaritzari eskaera justifikatu bat egingo zaio (eskaera kontserbatorioko web orriko idazkaritza birtuanean eskuragarri).

2.2. Behin baimena eskuratuta, 30 euroko fidantza utzi eta baldintzen onarpen orria sinatuko da. Kurtso amaieran edo alokairu epe amaieran, giltza itzulita eta armairuaren egoera ikusita fidantza itzuliko da.

2.3. Giltza galtzen bada fidantza galduko da.

2.6. IKASGELA ETA KABINEN ERABILERA

Ikasteko kabina baten eskaera

Ikasteko kabinak atezaintzan eskatzen dira kontserbatorioko karnetaren bitartez (giltza itzultzean karneta itzultzen da). Erabilera denbora, ordu batekoa izango da gutxi gorabehera eta ez badago eskaerarik denbora hau luzatu ahalko da.

Ikasgela baten eskaera

Ikasgela batean sarritan edo noizbait ikasteko baimena eskuratu daiteke. Honetarako, zentroko zuzendaritzara zuzendutako eskaera bete beharko da (Kontserbatorioko web-orriko idazkaritza birtualean eskuragarria). Baimen honek ez du ikasgela erreserbatzeko baimenik ematen. Ikasgela zentroko jarduera batengatik beteta badago, antzeko ezaugarriak dituen beste ikasgela bat eskaintzen saiatuko da (erabilgarritasunaren arabera betiere).

Erabilera araudia

- Ikasgela eta kabinak, baita bertan dagoen material eta instrumentuak baldintza perfektuetan mantendu beharko dira. Zerbait egoera txarrean badago atezaintzan abisatuko beharko da.
- Ikasgelak, eskatutako funtzioetarako bakarrik erabili daitezke.
- Erabilera denbora amaitzean, giltza atezaintzan itzuli beharko da.
- Debekatuta dago ateetako leihatila estaltzea.
- Ez dira ateak barrutik itxiko giltzaz.
- Araudia ez betetzeak, honako diziplinazko neurrien arabera, zigorrak jasango ditu:
- Giltza behar denean ez itzuli edo zentrotik giltzarekin irteteak, aste bateko zigorra ekar dezake.
- Ikasgelaren erabilera desgokia bizikidetzaren kontrako jarreratzat hartuko da (ikusi ROF).
- Kalteak egitea, bizikidetzaren kontrako jarrera larritzat hartuko da (ikusi ROF).

COVID: KABINA ETA IKASGELEN ERABILERAREKIN LOTUTAKO NEURRI ETA MURRIZKETAK.

- Maskararen erabilera derrigorrezkoa (abeslari eta haizezko instrumentuentzat izan ezik).
- Eskuen garbiketa, bereziki piano erabili behar bada.
- Ikasteko denbora 45 minututara murrizten da.
- Zentroak erabileren artean desinfektatu eta aireztatzeko denbora beharko du (atril, aulki, piano...).
- Ikasle kopurua kabinetan batera eta ikasgeletan laura (talde entseguak) mugatzen da.

2.7. INSTRUMENTUEN LAGAPENA

Zentroak instrumentuak ditu lagatzeko espezialitatearen arabera. Kontsultatu baldintzak eta prozesua zure tutoreari.

COVID: Emango den instrumentuak, koarentena denboraldi bat pasa beharko du lagapen berri bat onartu aurretik.

2.8. BIBLIOTECA JESÚS GURIDI LIBURUTEGIA

“Jesús Guridi” kontserbatorioko liburutegia, liburutegi espezializatua da eta honen edukia musikara eta zentroaren formakuntza beharretara bideratuta dago. 20.000 dokumentu baino gehiagoko katalogoa dauka eta honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- [Liburutegiko bloga](#): Kurtso, lehiaketa eta kontzertuen inguruko informazioa.
- Maileguak: partiturak, liburuak, aldizkariak eta CDak.
- Irakurketa eta ikasketarako eremua
- Wifi

Maileguetarako ordutegia

Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
		10:00-12:00		11:30-13:30
16:00-20:15	16:00-20:15	16:00-20:15	16:00-20:15	16:00-20:00

COVID: Liburutegiaren erabilerari dagozkion neurri eta murrizketak

Ikasteko gela

- Edukiera %50ean mugatu da.
- Ikasten amaitzean, identifikazio seinalea utzi beharko da lekuan eta hau, garbitzaileek desinfektatu arte blokeatuta egongo da.
- Blokeaturik dauden ikaslekuen erabilera debekatuta dago.
- Ordenagailu gela ezgaitu da.
- Ikasleek lehentasuna dute erabiltzaile orokorren aurrean. Horrela, liburutegiko langileak badio, erabiltzaileak gela utzi beharko du.

Mailegu zerbitzua

- Gelan ez da erabilera libreko materialik egongo eskuragarri (aldizkariak, kontsulta liburuak etab.)
- Liburuak, CD edota eskaneatu ezin den materiala, posta elektronikoz eskatu beharko da egun bateko aurrerapenarekin. Liburutegiko langileen oniritzia itxaron beharko da.
- Itzulpenak, horretarako ahalbidetutako espazioetan egingo dira eta hauen ondoren, koarentenan egongo dira berriro eskuragarri egon aurretik.
- Partiturak posta elektronikoz eskatuko dira eta pdf formatuan jasoko dira. Gehienez 72 ordu itxaron beharko da jaso ahal izateko.

Liburutegiko langilea: Maite Sagarzazu

Posta elektronikoa: 010131bi@hezkuntza.net

2.9. TELEFONO MUGIKORREN ARAUDIA

Hurrengo araudia, ikas komunitate osoarentzat da derrigorrezkoa. Zentroan mugikorraren erabilera arautzen du, baita erlazionatutako jardueretan ere (klaseak, audizioak, kontzertuak etab.).

- Zentrora mugikorrarekin sartzea onartuta dago.
- Gailuak soinurik gabe egon beharko dira momentu oro.

Erabilera espazioak:

- Ikasgelak: Debekatuta dago klasean mugikorra erabiltzea irakasleak eskatuta ez bada.
- Liburutegia eta kabinak: Mugikorra ikasketarako gailu bezala erabiltzea onartuta dago, betiere beste espazioetako erabiltzaileei molestatu gabe.

Arau hauek ez badira betetzen edozein irakaslek ahoz abisatuko du ikaslea, honi mugikorra kentzeko baimena duelarik.

3. ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES VICENTE GOIKOETXEA GURASO ELKARTEA

Ikasleen guraso eta tutore legalak gonbidatuta zaudete elkarte honen parte izatera. Elkarte honen helburua Kontserbatorioarekin kolaboratzea da, bere formakuntza musikalean eta errefortzu jarduerak bultzatzen. Hau horrela konkretatzen da:

- Instrumentuen aseguru bat kudeatu, ezaugarri oso abantailatsuekin.
- Eskola Kontseiluan parte hartu (zentroko ordezkariak gehien duen organoa).
- Hezkuntza musikaleko beste zentroekin egiten diren kontzertu eta lekualdatzeetan kolaboratu.

- Kontserbatorioak antolatzen dituen jarduera desberdinetan kolaboratzeagatik, elkartearen kide diren ikasleei ekonomikoki lagundu.

Informazio gehiagorako:

<https://sites.google.com/view/jesusguridigurasoelkarte/inicio>

vicentegoikoetxea@gmail.com